

BESTELAKO XEDAPENAK

INGURUMEN ETA LURRALDE POLITIKA SAILA

2989

EBAZPENA, 2015eko ekainaren 30ekoa, Natura Ingurunearen eta Ingurumen Plangintzaren zuzendaria, zeinaren bidez jendaurrean jartzen baita honako hau: Izki (ES2110019) Kontserbazio Bereziko Eremu (KBE) izendatzea eta, KBE eta Hegaztientzako Babes Bereziko Eremua izanik, eremu horretan bete behar diren kontserbaziorako helburuak eta neurriak onartzea.

Ingurumen eta Lurralde Politikako sailburuaren 2015eko ekainaren 29ko Aginduaren bitartez, honako hau erabaki da: Arabako Lurralde Historikoko Izki (ES2110019) Kontserbazio Bereziko Eremu izendatzeko den eta, KBE eta Hegaztientzako Babes Bereziko Eremu (Hegaztientzako BBE) izanik, eremu horretan bete behar diren kontserbazio-neurriak onartzen dituen dekretu-proiektua aldeztu aurretik onestea.

Xedapen orokorrak egiteko prozedurari buruzko abenduaren 22ko 8/2003 Legearen 8.1 artikularekin bat, eta apirilaren 15eko 1/2014 Legegintzako Dekretuaren bidez onartutako Euskal Autonomia Erkidegoko Natura Kontserbatzeko Legearen testu bateginaren 22.2 artikularekin bat, ingurumena babesteko helburua duten irabazi-asmorik gabeko erakundeen eta administrazioen entzunaldi-izapideak egin behar dira; horrez gain, eremuen izendapenak jendaurrean jarri behar dira, honako hauek adierazita: lekuen eta beraien mugaketaren kartografia, izendapenak arrazoitzen dituzten Batasunaren intereseko habitat motak eta animalia- eta landare-espezieak, horien kontserbazio-egoerari buruzko balorazioa, lekuak kontserbatzeko helburuak eta arauak eta jarraipen-programak.

Horregatik guztiagatik, Ingurumen eta Lurralde Politika Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzeko apirilaren 9ko 196/2013 Dekretuaren 6.e) artikuluan xedatutakoarekin bat, honako hau

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– Jendaurrean jartzea honako hau: Arabako Lurralde Historikoko Izki (ES2110019) Batasunaren Garrantzizko Lekua (BGL) Kontserbazio Bereziko Eremu (KBE) izendatzea eta, KBE eta Hegaztientzako Babes Bereziko Eremua (Hegaztientzako BBE) izanik, eremu horretan bete behar diren kontserbaziorako helburuak eta neurriak onartzea; jendaurrean jarriko dira EHAA iragarki hau argitaratu eta biharamunetik, 2015eko irailaren 7ra arte. Epe horretan, egoki irizten dieten alegazioak aurkeztu ahal izango dituzte interesdunek.

Bigarrena.– Aurreko paragrafoan xedatutakoaren ondorioetarako, epe horretan dokumentazioa ikusgai izango da, bai egoitza elektronikoa (www.euskadi.eus/natura2000), bai EAEko Administrazio Orokorraren Ingurumen eta Lurralde Politika Saileko Natura Ingurunearen eta Ingurumen Plangintzaren Zuzendaritzan, jendaurreko ordutegian, honako helbide honetan:

Natura Ingurunearen eta Ingurumen Plangintzaren Zuzendaritza
Ingurumen eta Lurralde Politika Saila
Eusko Jaurlaritza
Donostia kalea, 1
01010 Vitoria-Gasteiz.

Vitoria-Gasteiz, 2015eko ekainaren 30a.

Natura Ingurunearen eta Ingurumen Plangintzaren zuzendaria,
AMAIA BARREDO MARTÍN.